



AMEZKETAKO JUBILATUEN TXOKO BERRIA

Balioanitzeko gela jubilatuek elkarte modura erabiltzeko izango da, familia edo lagunekin sartu ahal izango dutelarik 5

TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO

hitza



Osteguna
2008-07-10

VIURTEA 1982.ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO



Haurrek freskatzeko aukera izango dute gune berri honetan jarri dituzten iturrietan. ESTI EZEIZA

USABAL, ZABALDUZ DOAN GUNEA

TOLOSA Eguzkia hartzeko kiroldegiko gune berria inauguratu zuten atzo goizean; puntako teknologiaz hornitu dute 3



Gazteak gustura ari dira tailerretan eskulanak egiten. N. GARZIA

Birziklapen eta urari buruzko tailerrekin «oso gustura»

LEITZA Maribi Lana eta Orkatz Erbiti begiraleak arduratzen dira tailerrak antolatzeaz 7

Espainiaren esku utzi du Frantziak Oskar Zelarain euskal presoak

VILLABONA Behin-behinean entregatu dute, epaitua izan dadin auzi batzuegatik 4

Paleta Txapelketari ekingo diote gaur, Berazubin

TOLOSA 40. aldia izango da aurtengoa; 10 bikote ariko dira eta finala uztailearen 23an jokatu da 2



TOLOSA MOTOR, S.A.

San Esteban Auzoa, 14-A

20400 Tolosa (Gipuzkoa)

Tel: 943-850337 Fax: 943-652938

e-mail: tolosa@tolosa.redpeugeot.com

Bipper Berria



Gaur hasiko da Tolosa CFk antolatuta 40. Paleta Txapelketa Berazubín

Kirola » 10 bikote ariko dira denera; kanporaketak, bi taldetan banatuta, uztailaren 23ra arte luzatuko dira.

ERREDAKZIOA

Gaur hasiko da Tolosa CFk antolatutako 40. Paleta Txapelketa. Guztira, 10 bikote ariko dira lehia Berazubiko pilotalekuan, dagoeneko txapelketa klasikoak bilakatu den honetan.

Ligaxka sistema erabiliko dute, beraz, bi taldetan banatuta, talde bakoitzeko bi lehenak final erditarako sailkatuko dira. Kanporaketak gaurtik uztailaren 23ra arte luzatuko dira, eta 19:00etatik aurrera jokatuko dituzte, bakoitzean bi partida izango direlarik.

Bestalde, berdinketa suertatuz gero, lehenik berdinduta dauden bikoteen arteko emaitzak hartuko dituzte kontuan, eta honekin nahikoa ez balitz, tanteo orokorrak hartuko lituzkete kontuan. Partidak 30 tantura izango dira, eta antolatzaileek azaldu bezala, atzeratzen dira, «hauek atzeratzeko arrazoi bakarria eguraldiak eragindakoak izango dira».

Ordezkoek jokatu ahal izateko, beti ere bikotearen titular bat egon beharko du, eta bikote batek kale eginez gero, partidua galdutzat emango zaio 30-0 emaitzarekin. Final erdieretatik aurrera partidak txuriz jokatuko dituzte.

Guztia prest dago beraz, eta gaurtik aurrera ikuskizun politaz gozatzeko aukera izango da Berazubiko frontoian.



Pasa den urteko Paleta Txapelketaren finaleko une bat, Berazubiko pilotalekuan. N.U.

» KANPORAKETEN EGUTEGIA

Uztailak 10, gaur

- Zubeldia-Goitia Zelaia anaien aurka.
- Lontxo-Nazabal Zubillaga-Elorzaren aurka.

Uztailak 11, bihar

- Yugueros-Aldazabal Karrera-Izagirren aurka.
- Niko-Txepe Arostegi-Zabalaren aurka.

Uztailak 14, astelehena

- Artola-Agirre Zelaia anaien aurka.
- Apeztegia-Maiza Zubillaga-Elorzaren aurka.

Uztailak 15, asteartea

- Artola-Agirre Arostegi-Zaba-

lak osaturiko bikotearen aurka jokatuko dute.

- Lontxo-Nazabal Karrera-Izagirren aurka.

Uztailak 16, asteazkena

- Karrera-Izagirre Zubillaga-Elorzaren aurka.
- Apeztegia-Maiza Yugueros-Aldazabalen aurka.

Uztailak 17, osteguna

- Niko-Txepe Zelaia anaien aurka ariko dira.
- Zubeldia-Goitia Artola-Agirren aurka.

Uztailak 18, ostirala

- Apeztegia-Maiza Karrera-Izagirren aurka.

- Lontxo-Nazabal Yugueros-Aldazabalen aurka.

Uztailak 21, astelehena

- Zubeldia-Goitia Arostegi-Zabalaren aurka.
- Niko-Txepe Artola-Agirren aurka.

Uztailak 22, asteartea

- Yugueros-Aldazabal Zubillaga-Elorzaren aurka.
- Arostegi-Zabala Zelaia anaien aurka.

Uztailak 23, asteazkena

- Zubeldia-Goitia Niko-Txeperen aurka.
- Apeztegia-Maiza Lontxo-Nazabalen aurka.

Laburrak

Tolosatik Zaragozako Expora joateko irteera

AISIA » Egun osoko irteerak antolatu dituzte Tolosatik Zaragozako (Espainia) Expora joateko. Animatezen denak bihar joateko aukera izango du. Hala, izena emateko edo informazio gehiago jaso eta edozein zalantza argitu ahal izateko 627 41 93 64 telefono zenbakira deitu beharko da.

Karts-etan ibiltzeko aukera Topagunearen eskutik

AISIA » Topaguneak gazteei zuzenduriko udako egitarauaren baitan, gaurko Olaberriara karts-etan ibiltzera irteera antolatu du. Hain zuzen ere, 15:30ean geratu dira Tolosako tren geltokian, eta 12 euro ordaindu beharko dira parte hartzeko.

TMMko plataformaren elkarretaratzea, bihar

GIZARTEA » Tolosaldeko Mundu Martxako plataformak elkarretaratzera deitu du bihar, «herenegun jazo zen Nagore Lassage irundarraren erailketa salatzeko». 20:00etan elkartuko dira Tolosako Trianguloan.

T Telefonoak

Larrialdiak. ((112))

OSASUNA.

Alegialdea. Osasun z.: 943 653212

Anoeta-Alkiza-Hernialde.

Medikua: 943 65 23 39

Asteasu. Medikua: 943 692423

Baliarrain. Medikua: 943 889003

Berastegi-Elduain.

Medikua: 943 683361

Bidegoian. Medikua: 943 681134

Ibarraldea. Osasun etxea: 943 672411

Ikaztegieta. Medikua: 943 653329

Irura. Osasun zentroa: 943 690720

Leitza. Osasun z.: 948 510800

Orendain. Medikua: 943 655595

Orexa. Medikua: 943 682228

Tolosa.

Anbulatorioa, larrialdia: 943 461111

San Esteban: 943 006800

Gernikako arbola: 943 006900

Amarozko dispen: 943 672637

Asuncion klinika: 943 675799 -

943 67 53 90 (larrialdiak)

DYA: 943 672536

Gurutze Gorria: 943 674888

Villabona. Anbulat.: 943 006970

Zizurkil. Aiztondo zerb.: 943 693930

GARRAIOAK.

Renfe: 902 24 02 02

Donostiako autobusa: 943 361740

Tolosaldea bus: 943 6500621

Leitzarain autob.: 948 221015

Taxia: 943 670420

Taxia (Leitza): 608 873016

BESTERIK.

Ertzaintza: 943 538820

Tolosa-Udaltzaingoa: 943 675858

Tolargi: 943 650016

Iurramendi egoitza: 943 670325

Tolosa gasa: 943 675320

Lolas Club taldea bihar Frontonen ariko da

Musika » 22:30ean hasiko da Gau Giro egitarauaren baitako emanaldia; rock doinuak izango dira nagusi.

ERREDAKZIOA

Mikel Andueza Triok Usabal kiroldegiko terrazan pasa den astean eman zuen kontzertuarekin hasi zen aurtengo Gau Giro egitaraua. Aste honetako ikuskizunari dagozkionez, Lolos Club taldeak eskainiko du kontzertua, bihar, Fronton kafetegiko terrazan, 22:30etik aurrera.

Unai Olano Lolos Club taldeko kideetako batek azaltzen duen bezala, «boskotea euren denbora librean rock eta rolla jorratu nahi duten langileez osatua dago, izan



Lolos Club taldeko kideak. HITZA

ere, Asierrek eta Jonek eraikuntzan egiten dute lan, Iñaki Amundarain musika irakaslea da, Iñaki Bernalek igogailuen lantegi batean egiten du lan eta ni elektrizista naiz».

2004. urtean sortu zen taldea, Jon Franco *Lolas* (ahotsa eta gitarrak) eta Asier Correa *Afi* (gitarra) lehen abestiak konposatzeko elkartu zirenean. Gainerako taldekideak pixkanaka pixkanaka joan zi-

ren taldean sartzen: Iñaki Amundarain *Keef* antiguotarra pianoan, Iñaki Bernal *Berry* Altzakoa baterian eta Unai Olano *Trintxerpekoa* baxuan.

Hala, Lolos Club rock and roll talde bezala zehaztua izan zen, euren gaztelaniazko berezko abestiek. Egiten duten rock klasikoari dagokionez, Rolling Stones, Lynyrd Skynyrd, Allman Brothers, Aerosmith eta Black Crowes bezalako taldeetatik datorrela esan daiteke.

Pasa den urteko apirila eta maiatzean grabatu zuten euren lehen dabilziko maketa, eta *Es solo rock & roll* izena jarri zioten. Bos abestiez osatua dago.

2007ko abuzturen 13an Donostiako Pop-Rock lehiaketako saria irabazi zuten, disko bat grabatzea, hain zuzen ere.



Atzo goizean ospatu zuten Usabal kiroldegiko gune berriaren inaugurazioa; besteak beste liburutegi zerbitzuaz dago hornitua; nahi dutenek liburuak hartu ahal izango dituzten, alokairuan. E. EZEIZA



Bi sarbide izango ditu gune berriak. E. EZEIZA



Jende ugari hurbildu zen atzo, inaugurazio ekitaldira. E. EZEIZA



Haurrek freskatzeko aukera izango dute iturrietan. E. EZEIZA

Aisirako gune biribila da Usabalgoa

Tolosa » Atzo goizean inauguratu zuten kiroldegiko eguzkia hartzeko gune berria; teknologia berrienez hornitua dago hau.

ESTI EZEIZA

Uda honetan berandu eta urri dabilta eguzki izpiak. Hala, hauek aprobetxatuz atzo inauguratu zuten Usabalgo eguzkia hartzeko gune berria. Kiroldegiko hirugarren fasearen lehen berrikuntzeta ko bat da hau. Eraikineraren atzealdean dago kokatua eta 3.800 metro inguru neurtzen ditu. Bertan, hainbat berrikuntza eta aukera daude aisirako.

Atzo goizean egindako inaugurazio ekitaldian jende ugari bildu zen, jakinminak bultzatuta. Guneak bi sarbide ditu, alde batetik, kiroldegiaren beste eraikinetik, hau daigerilekutik, eta bestetik, kanpoaldetik, jenzenean ireki duten atetik.

Gunearen alde batean, haurrentzako, urezko jolasleku bat dago. Bertan, iturri ezberdinetan busti ahal izango dira, beroari aurre egi-

teko. Bestalde, eguzkia hartzeko gunea neguan, futbol zazpirako erabili ahal izango da. Zorua belar artifizialez estali dute, eta futbol zelaiaren arrastoak margotu dituzte. Honek 150x30 metro neurtzen ditu eta argiztapen berezia

ipini dute horretarako. Dagoeneko jarrita daude hainbat hamaka, eta itzalkinak egun gutxira jarriko dituzte. Baina, aipatu bezala, hirugarren faseko lehen berrikuntza dasalariumarena, eta aurrera begira, beste hainbat aldaketa egitea aurreikusten da, horien artean, paddleko pista, patinajekoa...

Inaugurazio ekitaldian, gunea atontzeko egindako lanetaz mintzatu ziren Angel de la Oz eta Cristina Fontan. Hauek azalduzko-

ren arabera, berdegune natural baten sentsazioa lortu nahi zuten. «Honetarako, inguru guztian landareak jarri dituzte, lorategi batean bageunde bezala sentitzeko».

Liburutegi zerbitzua

Aisiguneko eskaintza biribiltzeko, liburutegi zerbitzua ipini dute Usabal kiroldegian. Hemen, 300 aldizkari eta liburu daude, eta jendeak mementoan har ditzake. Honela, alde batetik, egun bateko zer-

bitzua dago. Eskaintza honekin, interesatuek, han bertan dagoen liburu edo aldizkari bat hartu ahal izango dute, baina egun horretako 19:00ak baino lehen itzuli beharra daukate. Bestalde, Aranburu jauregian edo Errotan dauden liburuak ere eska ditzazkete bertan. Baita itzuli ere. Zerbitzu berri honekin lotuta, hau indartzeko, Wi-fi sistemaren bidez, doan nabigatzeko aukera izango dute bertaratuta koek.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

Donostia aldeko komunikazio enpresa batek ZUZENDARIA behar du

Eskaintzen da:

- Etorkizunean aukerak eskaintzen dituen lanpostua.
- Laneko kontratua.
- Soldata finkoa.

Eskatzen da:

- Kazetaritza edota euskal filologia ikasketako izatea.
- Euskaraz zuzen idazteko eta testuak zuzentzeko gai izatea.
- Izaera dinamikoa izatea eta harremanetarako gaitasuna edukitzea.
- Autoa izatea.

Kontuan hartuko da:

- Kazetaritzan eskarmentua izatea.
- Donostiarra edo inguruko izatea.
- Quark Xpress programa menderatzea.

Curriculum Vitae xehatua bidali abuztuaren 10erako.
gizabaliabideak@jarduna.net



Iazko hiru lehenak emakumezkoetan eta gizonezkoetan. ANDER OTEZABAL

Kros Igoerak emango dio hasiera ohi bezala Santamañako festei

Asteasu » Igdandean izango da lasterketa; 10:30ean hasiko da eta korrikalariak zazpi kilometroko ibilbidea egingo dute.

ERREDAKZIOA

Asteasuko Santamaña auzoko festei hasiera emango dio ohi bezala, Kros Igoerak. Igande honetan izango da eta dagoeneko zortzigarren aldian da antolatzen dela proba hau. Festen ekitaldiak berriro hasiko dira hilaren 18an, Tranpazuoren igoerarekin eta txupinazoarekin.

Kros igoera 10:30ean hasiko da Asteasuko plazatik eta Santamañako baselizaraino igo beharko dute korrikalariak, zazpi kilometro-

ko ibilbidea eginez. Sariak bai emakumezkoentzat eta bai gizonezkoentzat berdinak izango dira: lehenengoak 150 euro jasoko ditu, bigarrenak 90 euro, hirugarrenak 60 euro, laugarrenak 30 euro eta bosgarrenak 20 euro. Errekorra jarritzen duenarentzat sari bereziak izango dira. Gizonezkoetan Iban Sanchezek jarri zuen, 25 minutu eta 50 segundorekin. emakumezkoetan Aintzane Argaizek jarri zuen, 33 minutu eta 21 segundorekin. Izena egunean bertan eman behar da proba hasi aurretik.

Kros Igoeraz gain beste ekitaldi-erregio ere izango da. Euskal Herriko Segura Txapelketako Ligaren jardunaldi bat jokatu baita Santamaña baselizararen inguruan. 17:00etan hasiko dira segalariak bere saioarekin.

Transernio Txapelketan, bigarren asteburuko partidak bihartik aurrera

Aduna » Infantil eta kadeteen mailako partidak bihar jokatu dituzte; igandean, benjaminak eta alebinak ariko dira.

ERREDAKZIOA

Transernio Pilota Txapelketaren bigarren asteburua jokoan jarriko dute bihar Adunako frontoian. 18:00etan hasiko dira partidak infantil eta kadeten mailan. Infanti-

letan Andoain-Azkoiti, Añorga-Usurbil eta Azpeitia-Hernani izango dira partidak. Kadeteen mailan, partida bakarra izango da, Alegia-Bidegoian. Igandean benjaminak eta alebinak jokatu dute eta 10:30ean hasiko dira partidak. Benjaminetan, Aduna-Andoain, Bidegoian-Alegia eta Azpeitia-Villabona izango dira partidak eta alebinetan, Aduna II-Andoain, Alkiza-Villabona eta Aduna I-Hernani.

Aurreko asteburuan jokatuak partiden emaitzak ondorengoak izan ziren: benjaminetan, Andoain 16-Hernani 3; Alegia 16-Azkoitia 4; Villabona 16-Usurbil 2; Añorga 16-Zizurkil 11; alebinetan, Zizurkil 16-Bidegoian 12; Hernani 16-Alkiza 1; infantiletan, Alkiza II 18-Alegia 15; eta kadeteetan, Usurbil 22-Azkoiti 3.

AMAROTZEKO IRUÑA JATETXEAN,
neska euskalduna behar da astelehenetik ostiralera, eguerdian lan egiteko. Bertan galdetu.



Ekaitz Kortajarena pultsularia saio batean. HITZA

Danena-Olaederrakoen balantze «gazi-goza» Espainiako Txapelketan

Villabona-Zizurkil » Orain gutxi zendu den Jon Tecedor pultsulariari omenaldia egin zioten txapelketan zehar.

IMANOL GARCIA

Danena-Olaederra taldeko pultsulariek Espainiako Txapelketan absolutu mailan lortutako emaitzak «gazi-goza» izan direla azaldu du Batis Kortajarena presatzaileak. A Coruña (Galizia) egin zuten lehiaketa. Ekaitz Kortajarenak hirugarren postua lortu zuen eta Jon Sasiainek laugarrena 62 kiloko mailan. 69 kiloko mailan Igor Sasiainek bederatzigarren postua lortu zuen. 85 kiloko mailan Teddy Martinez bigarren postua

eta Javier Aranburuk bosgarrena lortu zuen.

Kortajarena prestatzaileak azaldu duenez, Ekaitz Kortajarenak eta Jon Sasiainek «txapelketa oso onak egin zuten. Oso motibatuta zeuden eta nahiko hobekuntza egin zuten txapelketan zehar».

Teddy Martinez ondo hasi zen txapelketa eta aukerak izan zituen lehenengo postua lortzeko, baina azkeneko bi saiakeretan ezin izan zuen lepotik gora altxatu pisua. Maila berdinean, taldean hasi berria den Javier Aranburu irundarrak «maila ona» eman zuen.

Bere maila eman ez zuena Igor Sasiain izan zen. «Azkenaldian txapelketetan ez da ari ematen bere maila. Bederatzigarren egin zuen, baina bere markengandik seigarren egita posible zuen», azal-

du du Kortajarenak. Egun, Valentzian dago Igor Sasiain. Hiru astez Europako 17 urte azpiko txapelketarako prestatzen ariko da zizurkildarra.

Jon Tecedorri omenaldia

Txapelketa zehar taldeko pultsularia eta laguna zen Jon Tecedorri omenaldia egin zioten. Sarreran panel bat jarrita zegoen bere argazkiekin eta bandera guztiak krespoi beltzekin zeuden eta panela erraldoi batean erreportatua bat ematen zuten, aldiro. «Memento hunkigarriak izan ziren bai familiarentzat baita lagunarentzat ere», azaldu du Kortajarenak, eta Danena-Olaederratik asko esker-tu diete «federazio guzteei, Galizia federazioari bereziki, elkartzasuna adierazteagatik».

Oskar Zelarain epaitua izateko utzi du Frantziak Espainiaren esku

Villabona » Atzo entregatu zuen Frantziako Poliziak Espainiako Poliziari; bihar deklaratzera eramango dute Auzitegi Nazionalera.

ERREDAKZIOA

Frantziako Poliziak hiru euskal preso entregatu dizkio Espainiako Poliziari, Espainiako Auzitegi Nagusian hainbat auzirengatik epai ditzaten. Oskar Zelarain billabonatarra da horietako bat eta atzo egin zuten entrega.

Zelarain behin-behinean entregatu dute, epaitua izateko. Sei hilabetez, eta epe hori luzatzeko aukerarekin, izan ahal da Espainian. Gero Frantziako espetxeetara itzuliko dituzte. Bihar deklaratzera eramango dute Auzitegi Nazionalera.

Preso billabonatarra 2002an atxilotu zuen Frantziako Poliziak, eta 2006an zortzi urteko kartzelaldia ezarri zioten. Espainiako epai-leele UPNko Leitzako (Nafarroa) zinegotzi Jose Javier Mujika Astibia 2001ean hil zuenetako bat izateko egotzen diote.

Kalte gutxiko sutea izan da Villabonako Kale Berriko garaje batean

ERREDAKZIOA

Villabonako Kale Berriaren 5. zenbakiko garaje batean sute bat sortu zen atzo goizean, kalte gutxi eragin zituena. Dirudienez, elektrogailu batek hartu zuen su. Ertzaintzak azaldu zuenez, ez da zauriturik izan eta ez zuten bizilagunak etxetik ateratu behar izan.

Garajeetan ke asko pilatu zen eta suhiltzaileen zeregina batez ere ke hori guztia ateratzea izan zen. Azken uhaldetan garaje horietan sartu zen ura.

EHPKko eta Herri Arteko Txapelketetako finalak, etzi

Amezketak » EHPKko pilotariak hiru frontoietan ariko dira; Herri Artekoan, berriz, Baztan eta Galdakao izango dira aurrez aurre.

NEREA URBIZU

Etzi Amezketako hiru pilotalekuetan Euskal Herriko Pilota Konfederazioko finalak (EHPK) jokatuko dituzte egun osoan zehar. Goizez 10:30ean hasita benjaminak, alebinak eta infantilak ariko dira. Amezketan Bizkaiko, Nafarroako, Arabako, Gipuzkoako eta azkenik Zuberoa, Lapurdi eta Nafarroa Beherearen artean osatutako selekzioak ariko dira. Denak denen kontra ariko dira eta 12:00etan onenen artean finala jokatuko dute. Partida hauek guztiak binaka izango dira.

Goizean zehar aurtien ariko diren herriak Baztan, Gasteiz, Arrasate, Iparraldeko pilotariak, Andoain eta Amezketak dira.

Arratsaldean berriz, 16:30a inguruan Larrunari pilotalekuan (plazaren ondokoan) Herriarteko hiru final jokatuko dira Galdakao eta Baztanen artean. Kadeteak, juvenilak eta nagusiak izango dira lehian. «Denak partida onak izan-

go dira seguru», Xalton Zabala Zazpi-Iturri pilota eskolako zuzendari eta arduradunak.

Babeslea Egunez enpresa da eta bigarren urtez final hauek Amezketan egitea eskatu du. «Herria egokia da hiru frontoi ditugulako bertan. Besteren bat behar izanez gero, Ugartera joan gaitezke, eta bestela Abaltzisketara. Beraz, bikiometrotan 5 pilotaleku izan ditzakegu behar izanez gero». Eguerdian bazkaria egingo dute antolatzaille nahiz babesleek, eta arratsaldeko finalen ondoren, berriz, afaria emango zaie finala jokatututenei, antolatzailleekin batera Harkaitzpen.

Joxean Tolosako partidak

Asteburu hau berezia izango da Amezketan pilota dela eta. Hasi berri den Joxean Tolosa Pilota Txapelketa larunbatetan jokatzeko da, baina asteburu honetan diferente egingo dute: bihar batzuk jokatuko dira eta igande arratsaldean beste batzuk.

Bestalde, hauek izan dira asteburu honetan jokatu dituzten partiden emaitzak: Fernandez 9, Manterola 18; Fernandez 18, Ugartera 16; Andueza 11, Mendia 18.

Gaueko partidetan Lizarralde

18, Arteaga 4; Maio 18, Kruz 17, eta Aranburu 3, Loiola 18. Beraz, asteburuan irabazi zuten pilotariak jarraituko dute txapelketan aurrera.

Partidak 18ra jokatzeko dituzte, baina pixuzko arrazoiak eman ditu Xalton Zabalak: «Partidak bestela luzeak egiten dira, eta esku huskako partidak oso gogorak dira pilotariarentzat. Gainera, partida ona bada, nahikoa da 18ra jokatzea».

Biharko eta igandeko partidetan ariko diren jokalariek aurrerago zehaztuko dituzte antolatzailleek.

Beste hainbat txapelketatan

Bitartean, Zazpi-Iturri pilota eskolako pilotariak Getariako, Anti-guoko eta Añorgako txapelketetan dabilta. Azken honetan finaletan daude jubenilak eta nagusiak eta igandean ariko dira bertan. Arzelus eta Jauregi (Añorgakoa) eta Legarreta eta Baez gazteek osatzen dituzte bikoteak.

Halaber, herriarteko Txapelketan lortutakoarekin pozik agertu da Zabala: «Aurtien lortu dugu taldea osatzea eta oso ondo aritu dira bai Amezketak eta baita Lizartza ere. Gainera lagunarte politikak sortu dira». Datorren urtean berriz taldea osatzeko asmoa erakutsi du Xalton Zabalak.



Igandeko inaugurazioan jubilatutako ugari elkartu ziren. HITZA

Jubilatuak lokal berria inauguratu dute

Amezketak » Balioanitzeko gela jubilatuek elkarte modura erabiltzeko izango da, familia edo lagunekin sartu ahal izango dutelarik.

ERREDAKZIOA

Joan den igandean jubilatuentzako lokal berriaren irekitze ekitaldia ospatu zuten Amezketan. Orain arte balioanitzeko gela zena «hemendik aurrera herriko jubilatuek elkarte edo soziedade modura erabiltzeko izango da». Beraiek biltzeko eta beraien familiarekin edo lagunekin sartu ahal izango dira bertan.

Lokal berriko giltzak udaletxe-

an egongo dira «60 urtetik gora dituzuenok jaso ahal izateko eta behin giltza eskuratuta denean, nahi denean joan ahal izateko», argitu du Mainer Romo zinegotziak.

Erabilera hau 20:00ak arte emango zaio, eta ondoren, bestelako bilera, bertso eskola eta ekintza ezberdinertako erabiliko da.

Igandeko irekitze ekitaldiak 60 urtetik gorako Amezketar ugari gerturatu zen eguerdiko 12:30ean, eta bertan izan zirenek «hamaiketako goxoa dastatzeko aukera izan zuten». Ondoren, funtzionamenduari buruzko argibideak eman zituzten, eta izan ziren makina berriko produktuak dastatu zituzten ere. «OsoSAFE goxoa ateratzen omen da makinatik!».



Iaz ere Amezketan izan zen Herri Arteko Pilota Txapelketako finala. Irudian, Arbizukoak eta Arrasatekoak. HITZA

Mendi Martxako argazkiak jada ikusgai

ERREDAKZIOA

Bedaioako mendi martxaren eta bizikleta ibilaldiko argazkiak jada www.bedaio.com webgunean daude nahi duenak ikusteko.

Bestalde, Kultur Asteburuko zaldia-aren inguruko argazkiak ere badira.

Irailaren 28an Zaldi Raid lasterketa egingo dute Bedaion, eta horregatik Kultur Asteburuaren baitan zaldi lasterketa honi buruzko informazio erabilgarria eman zu-

ten. Lasterketa horren funtsa heziketa da, eta Bedaio zaldiz ibiltzeko paraje ederra eta aproposa da.

«Zaldia baduzu, gazte edo heldu bazara eta natura maite baduzu, edozein etor daiteke Bedaiora», diote antolatzailleek.

«Animatu eta parte hartu lasterketa honetan». Informazio gehiago nahi izanez gero, bedaioerrota@hotmail.com helbidera idatzi daiteke.

txokoa h

**2 pertsonentzako
piragua eskolean ikastaroa**

zozketan, deitu eta eskuratu

Txaraman abuztuaren 18-23ko astean goizez



KAXKARDI
KIROL ERREKREATIBO ELKARTEA
kaxkardi@hotmail.com



Txarama bidean bidegorriaren lanak

TOLOSA Tolosatik Txaramara doan errepidean, Amarop Paperelaren alboan, lanak egiten ari dira. Lehenik urarentzat tuboak sartu dituzte eta hau estali ondoren bidegorria egiteko lanak hasiko dira. Honen ondorioz errepidean semaforoak jarri dituzte, bide bat itxia aurkitzen baita 100 metro inguruko eremuuan. ASIER IMAZ

San Fermin Torneoan Zeberio II.a finalerdietan aurkitzen da

Erremontea Altuna anaiak txapelketatik kanpo geratu dira eta elduaindarrak gaur jokatu du partida.

A. IMAZ

San Fermin Torneoako finalerdia herenegun erabakita gelditu ziren. Saikaturiko lau bikoteetan eskualdeko erremontista bakarra aurkitzen da, Patxi Zeberio, Altuna anaiak txapelketatik at gelditu ostean.

Bikote indartsuena

Zeberio II.ak eta San Miguelek osatzen duten bikotea, Torneoako bikote indartsuena bezala saikatu zen finalerdietarako.

Ligaxkako lehen neurketan Uterga-Lizaso 20 tantutan utzi baldin bazituzten Patxi Zeberio eta Julen San Miguelek, bigarren partidari Altuna I.a eta Etxeberria III.a frontoitik atera zituzten 16ean uztean.

Enpresako iturrien arabera, «Patxi Zeberio azken denboraldian Huarateko Euskal Jai Berrin jokatu zuen partidari onena jakatu zuen herenegun, ligaxkaren azken partidari». Elduaindarrak 17 tanto egin zituen.

Altuna anaiak kalera

San Fermin Torneo edo Sandua Olioak Torneo ez da batere ona izan Altuna anaiarentzat. Amezketarek ligaxkako azken postua lortu dute euren multzoetan, ondorioz, biak txapelketatik at gelditu dira.

Garikoitz Altunak eta Eizagirek partida bat irabazia eta bestea galdu dute eta A multzoaren hirugarren postuan gelditu dira. Imanol Altuna eta Etxeberria III.ak berri, jokatu dute bi partiduetan galdu dituzte eta hauek ere B multzoaren hirugarren postuan gelditu dira.

Finalerdia gaur Huarten

Sanua Olioak Torneoaren finala uztailearen 12an, etzi, jokatu da Huarateko Euskal Jai Berrin, 16:00etan hasiko den jaialdiaren barnean.

Txapelaren lehian ariko diren bikoteak nortzuk izango diren gaur erabakiko dira frontoi berean 16:00etatik aurrera. San Fermin Torneoaren lehen finalerdia Ezkurra-Aizpuru eta Uterga-Lizasok jokatu dute. Bigarren finalerdia Zeberio II.-San Miguel eta Urriz-Urrutiak jokatu dute.

Finalerdia eta finala, enpresak jakinarazi duenez, telebistak eskainiko ditu zuzenean.

Iragarki laburrak

LANA

■ **Sukaldariak eta zerbitzaria.** Ikaztegiak ostatu batean, bi sukaldari eta asteburuetarako zerbitzaria behar dira. 639 43 95 82.

SALGAI

■ **Etxea.** Etxebizitza salgai Tolosa Alde Zaharrean. Merkea. Obra egin behar da. Interesatuak deitu: 657 23 00 11/634 91 94 82.



Larunbatean besteak beste jokoak egin zituzten Langostino Moto Festaren barnean. HITZA

VI. Langostino Moto Festan «giro ona» izan dela azaldu dute Langostinoko kideek

Ibarra Asteburuan egin zuen eguraldia eta Moto Festako lehiaketak aipatu dituzte balorazioa egiterako orduan.

ASIER IMAZ

Langostino Moto Festaren seigarren edizioa iragan asteburuan ospatu zen Ibarrian.

Langostino Moto Kultur Elkarteak jaiaren lehen balorazioa egin du eta eguraldia azpimarratu dute festaren nondik norakoak kontartzeko garaian. Izan ere, larunbatean lagun izan zen bezala, igandean euria etsai izan zuten Ibarrian bil-

dukoto motozaleek. Ekitaldien barnean asteburuan ospatutako lehiaketan berri ere eman dute Langostinoko kideek, garaileak nortzuk izan diren aipatuz.

Partaideak eta eguraldia

Antolatzaileen esanetan, «urtero bezala partaide ugari bildu ziren Moto Festan. Hauen artean Finlandiatik etorritako motozale bat aipatu nahi dugu, oporretan inguru hauetan zebilenez, Ibarra gerturatu baitzen».

Larunbatean egun polita izan zela kontutan hartuta, jolasak eta erakustaldiak ongi joan zirela aipatu dute Langostino Moto Kultur Elkarteak kideek. Igandean be-

rriz, «euria izan genuen. Moto bira aurreikusia genuen eta 45 ausart aurkeztu ziren Bira egiteko prest. Oro har giro ona izan da eta VII.aldiaren zain jendea gustura joan zen etxera».

Moto Festako sarituak

Langostino Moto Festan hainbat lehiaketa egin ohi dira. Hauek dira aurtengo irabazleak: «Moto Klub jendetsuenaren saria Goierriko Sugoi-ek eraman zuen. Show Bike lehiaketako moto onenaren saria HD Kantabriako Txemik eraman zuen. Streetfighter Moto onenaren saria HD Gipuzkoa Cheyenneko Emik irabazi zuen eta Chopper onenaren saria Bizkaiko Oskarrek.



Langostino motoaren gainean eta gizon bat arropa kentzen eszenatokiaren gainean. HITZA



Zubietako Garbiñe Zalduren laguntza izan dute birziklapen tailerlean parte hartu duten umeek. N. GARZIA



Jatri eta Jamade, arrautza-ontziekin egindako jolasak eskuan dituztela. N. G.



Argazkian, Orkatz Erbiti eta Maribi Lana begiraleak, umeekin lanean. N. GARZIA



Hegoa Crramer, berak egindako sorgin orratzarekin. N. GARZIA

Irudimena landuz

Leitza » Joan den asteko tailerrek in amaitu ondoren, aste honetan tailer berriekin hasi dira, birziklapenarenarekin eta urarenarekin.

NAIARA GARZIA

Joan den asteko tailerrek amaitu ondoren, aste honetan beste 2 tailerrek in hasi dira: birziklapena eta natura eta ura delakoekin.

Birziklapen tailerlean, astelehenean zerri batzuk egin zituzten. Horretarako globo bat puztu eta

egunkariekin egin zuten azala. Hankan komuneko paperekin egin zituzten eta muturra jogurrekin. Asteartean, berriz, arkatzak uztako kutxa batzuk egin zituzten tetra-brikak erabiliz eta zezenen marrazkiekin apaindu zituzten. Atzo sorgin orratzak ere egin zi-

tuzten eta arrautzen kartoiarekin jolas bana ere egin zuten.

Gaur musika tresnak eginen dituzte: txirula, turuta eta marakak eta bihar, amaitzeko, kamisetak eta kristalezko ontziak margotuko dituzte».

Maribi Lana eta Orkatz Erbiti begiraleak talde honetaz arduratu dira aste osoan zehar, baina gainera Zubietako Garbiñe Zaldua matematikako irakaslearen laguntza ere izan dute, eskulanak egiten eskarmentua baitu. Zalduak azaldu

duenez, «umeak gustura ikusten ditut».

Jatri Aranzeta Lizarraga eta Jamade Hana Molude sahararrak ere tailer honetan parte hartu dute. Uda igarotzera Leitzara etorri dira, ekainaren 17an etorri ziren eta abuztuaren 17an itzuliko dira Saharara. Leitzan «oso gustura» daudela azaldu dute. Jatrik laugarren urtea du hemen eta Jamadek bigarrena.

Natura eta ura izeneko tailerrari dagokionez, aste honetan eguraldi

ona egin duela aprobetxatuz, kalean izan dira, eta atzo, esaterako, Arekozubini izan ziren eta txirrista antzeko batean flotagailuekin gora eta behera ibili ziren. Astelehenean Leitzako ur-araztaileran edo depuradoran izan ziren, bere funtzionamendua ikusten, eta asteartean urez puztutako globoekin jolasteaz gain, Coca-colarekin esperimentu bat egin zuten. Gaur, berriz, mugara joan dira eta bihar argazki erakusketa eginen dute gurasoek ikus dezaten.

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurle

hilberriak
urteurrenak
eskertzak



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Noelia Lataburu
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefona: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko hitza.info

Zuzendariordea: Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitatea: 661 678 818 tolosaldean_public@tolosaldeko hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko hitza.info.
Anoeta: 687 410 022. anoeta@tolosaldeko hitza.info.
Ibarra: 687 410 032. ibarra@tolosaldeko hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko hitza.info.
Leizaldea: 687 410 118. leizaldea@tolosaldeko hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:



eta Tolosaldeko eta Leizaldea beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari

'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketa, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agenda

Irteerak

- **Anoeta.** Promozio bidaia egingo dute Alkartasuna Biltokikoek Briones herrira, Errioxan, hilaren 22an, upategi bat bisitatuz. Izen-ematea, Biltokian bertan egin daiteke 18:00etatik 20:00etara, 10 eurotan.
- **Tolosa.** Olaberriara kart-etan ibiltzera irteera antolatu du Topaguneak. 15:30ean tren geltokian (12 euro).
- **Tolosa.** Eguneko irteerak antolatu dira Tolosatik Zaragozako Espora hilaren 6an eta 13an. Informazioa, 627 419364 telefono zenbakian.

Erakusketak

- **Tolosa.** Isabel Mujikaren margolanak Itaie tabernan daude ikusgai. 15 orduz, gehienak paisajeak.
- **Alegia.** Mari Karmen Ezeizaren artelanak ikusgai daude jubilatuen tabernan. Lore eta hosto lehorrez osatutako 30 collage dira. Astartetik igandera.

Ikastaroak

- **Elduain.** Patinaje ikastaroa antolatu dute, asteartean eta ostegunetan, 18:15ean, uztailean 24ra arte. Abuztuan 19an hasi eta 28 arte. Abuztuko ordutegia ikasleekin hitzartuko da.

Kirolak

- **Villabona.** Oza-Atxerito (2.358 m)-Zuriza mendi irteera antolatu du Aizkardi mendi elkarteak hilaren 13rako. Izen-ematea, elkartearen bertan.

Deialdiak

- **Aiztondo.** Aiztondo mankomunitate eskualdeko jubilatuen bazkaria antolatu du hilaren 20rako. Izen-ematea, 943 603930 telefono zenbakian.
- **Elduain.** Udalak Oporretako argazki lehiaketa antolatu du. Argazkiak kultura@elduain.com helbidera bidali behar dira, izen abizenak jarri eta nahi bada komentario txiki bat ere bai. Herriko festetako egitarauan jarriko da irabazlearen argazkia.

» GUARDIAKO FARMAZIAK

- **Tolosa.** Tolosa, M.I. Kale Nagusia, 7. 943 670648.
- **Leitza.** Erbiti, O. Lizarraga kalea, 7.112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esanetan eta iritzien erantzunik.



Zumadiko neskak, txapeladun

AMEZKETA ● Amezketako Zumadi ikastetxeko neskak, San Joan jaieran Tolosan antolatzen den futbol txapelketa irabazi zuten. Hainbat urtetan jarraian finalerako txartela lortu izan dute neskek, baina beti bigarren postuak uzten duen zapore gazi-gozo horrekin geratu izan dira. Aurtengoan, ordea, ongi merezitako lehenengo saria lortu zuten, txapelketa eder bat egin ostean. Amezketako ikastetxetik, «zorianik beroenak» eman diete eta «ea aurrerantzean ere hain gozotsu jarraitzen duten». HITZA

A Agurrak



Urte askoan!

Janitz Sagastibeltza Zabaleta (Leitza). Gaur urtebete. Zorionak zure osaba-izeba eta atton-amonen partetik.

agurrak urtebetetzeak
urrezko ezteiak
ezkontzak
jaioberriak
jaunartzeak...



Bodiak
Pijamak
Kamisiok
Kamisetak
Batoiak
Pikardiak
Tangak
Errementari Kalea, z/g • TOLOSA
Tel.: 943 67 16 30

Asteburu honetan berria

Hego Amerikako bi estatubururi

ELKARRIZKETA



«Bolivarrek aipatzen zuen aberri handi hori izan behar du Latinoamerikak»

Uztailak 12, larunbata

Fernando Lugo

PARAGUAIKO PRESIDENTEA

«Europa gure arbasoei lapurturikoa itzultzen baino ez da ari»

Uztailak 13, igandea

Evo Morales

BOLIVIAKO PRESIDENTEA

